



E.- ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINeko ZERGA ARAUTZEKO ZERGA-ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzeko Foru Arauan eta zergari buruzko Foru Arau partikularrean aurreikusitakoa kontuan hartuta, udal honek Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga ezarri eta eskatu egingo du ordenantza honen arabera. Ehuneko taularen eta ezarri beharreko tarifen eranskina ordenantzaren beraren osagaia izango da.

2. artikulua.-

Ordenantza hau udal-mugarte osoan ezarriko da.

II. ZERGA-EGITATEA

3. artikulua.-

Hirigintzako obregatikozko lizentziaren helburua den edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea izango da zerga honetako zerga-egitate, lizentzia hori lortu nahi lortu ez, betiere, lizentzia hori udal honek eman behar badu.

4. artikulua.-

Adierazpen moduan, zerga-egitateari begira honako hauexek izango dira zergapeko suposamenduak:

1. Oinplano berriko era guztietako eraikinak edo instalazioak eraikitzeo obrak.
2. Lehendik zeuden era guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeo obrak.
3. Lehendik zeuden era guztietako eraikin edo instalazioen egituraren eragina duten aldatetak edo eraldaketak egiteo obrak.
4. Lehendik zeuden era guztietako eraikin edo instalazioen kanpoko itxura aldatzeo obrak.
5. Haien erabilera edozein dela ere, eraikinen barruko antolaera aldatzeo obrak.
6. Lurzoruari buruzko Legeko Testu Bategineko 58. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako behin-behineko obrak.
7. Zerbitzu publikoak jartzeko obrak.
8. Lur-mugimenduak; esate baterako, lur-erazketak, indusketa eta betelana, betiere, onartutako edo baimendutako Urbanizazio Proiektuan edo Eraikuntza Proiektuan egintza horiek betearazi beharreko obra moduan zehaztuta eta antolatuta ez badaude.
9. Eraikinen eraispena, berehalako aurrieko eraikinetan izan ezik.
10. Honako honexetarako erabilitako lurpeko instalazioak: aparkalekua, jarduera industrialak, merkataritzako jarduerak, jarduera profesionalak, zerbitzu publikoak edo lurpeari emandako beste edozein erabilera.
11. Bide publikotik ikusgai dauden propaganda-kartelak jartzea.
12. Ahalmen ekonomikoaren adierazgarri diren eta obregatikozko edo hirigintza-arloko lizentziapean dauden baliabide ekonomikoaren inbertsioaren helburu den edozein obra, eraikin edo instalazio.

5. artikulua.-



Udal honen jabari-titularitatepeko higiezinetan egindako eraikuntzak, obrak edo instalazioak ez dira zerga honen eraginpean egongo.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua.-

1. Zergadun moduan, zerga honetako subjektu pasiboak izango dira Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako eta eraikuntzen, instalazioen edo obren helburu diren higiezinaren jabeak diren pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, betiere, obren jabeak badira. Gainerako kasuetan, ordea, obraren jabea izango da zergaduna.

2. Udaleko zerga-administrazioaren aurrean obraren jabea obraren helburu den higiezinaren jabea ez den beste pertsona edo erakunde bat dela sinesgarritasunez egiaztatzen ez bada, jabea azken hori izango dela hartuko da kontuan.

7. artikulua.-

1. Zergadunaren ordezeko subjektu pasiboak izango dira kasuan kasuko lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak, betiere, zergadunek eurek egiten ez badute.

2. Edonola ere, Udal Administrazioak zergadunaren ordezkariari eskatu ahal izango dio zergaduna den pertsonaren edo erakundearen helbidea zein den adierazteko.

IV. ZERGA-OINARRIA

8. artikulua.-

1. Eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da zerga-oinarriaren osagaia.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera, honako hauxe kontuan hartuko da behin-behineko likidazioa sorrarazi duen betearazpenaren aurrekontuan: proiektuaren eta zuzendaritzaren ordainsari teknikoaren kostua, posible industrialak, aurretiazko lanak eta lan osagarriak.

3. Udal-lizentziarik gabeko eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan, Udal Administrazioak berak zehaztuko du zein den zerga-oinarria.

V. ZERGAREN KUOTA

9. artikulua.-

Zerga honen kuota lortzeko, zerga-oinarrian ezarri beharko da eranskin honetan aipatzen den karga-tasa.

VI. ZERGAREN SORTZAPENA

10. artikulua.-

Eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean sortuko da zerga, nahiz eta kasuan kasuko lizentzia lortu ez den.



VII. KUDEAKETA

11. artikulua.-

Derrigorrezko lizentzia ematen denean, behin-behineko likidazioa egingo da, eta interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zerga-oinarria zehaztuko da, betiere, aurrekontu hori kasuan kasuko elkargo ofizialak onetsi badu. Bestela, udal-teknikariek eurek zehaztuko dute zein den zerga-oinarria, proiektuaren kostu zenbatetsiaren arabera.

12. artikulua.-

Kasuan kasuko lizentzia emandakoan hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da aldatutako aurrekontuaren arabera behin-behineko beste likidazio bat egiteko jatorrizkoa gainditzen duen zenbatekoa kontuan hartuta.

13. artikulua.-

1. Benetan egindako eraikuntzei, instalazioei edo obrei begira eta haien benetako kostuari begira, Udal Administrazioak kasuan kasuko egiaztapen administratiboaren bidez aldatuko du zerga-oinarria. Horretarako, behin betiko likidazioa egingo du, eta kasuan kasuko zenbatekoa eskatu edo itzuliko dio subjektu pasiboari.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo behin-behinean jaso osteko hurrengo hilabetean inguruabar horren adierazpena aurkeztu beharko da Udal Administrazioak emandako inprimakian, baita kasuan kasuko elkargo profesionalak onetsitako obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria ere, bideragarria denean. Horren bidez, hain zuzen ere, obren kostu guztia ziurtatuko da, proiektuaren zein zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, mozkin industrialak eta horien ondorioz egon daitezkeen beste batzuk kontuan hartuta.

14. artikulua.-

Zergaren likidazioaren ondorioetarako, isiltasun administratibo positiboa ezartzeagatik emandako lizentziek lizentzien berezko esleipenaren eragin berbera izango dute.

15. artikulua.-

Udalak autolikidazioaren araubidepean eskatu ahal izango du zerga hau.

16. artikulua.-

Idatziz aurkeztutako berariazko ukoaren bitartez, lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez egitea erabakiko balu, egindako behin-behineko likidazioa oso-osorik itzuli edo deuseztatuko luke udalak.

17. artikulua.-

Lizentzia mugaeguneratutakoan, egindako likidazioa itzuli edo deuseztatuko du udalak, betiere, titularrak berritzeko eskatzen ez badu eta udalak baimentzen ez badu.

VII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau adierazitako datan onartu da behin betiko, eta BAO on oso-oso-oso argitaratzen deneko egunetik aurrera egongo da indarrean.



ERANSKINA

Tarifa eta karga-tasa:

Eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren mota

- Alde Zaharreko obra berriak..... %1
- Alde Zaharreko etxebizitzaren barruko aldeak hobetzeko eta txukuntzeko obrak.... %1
- Gainerako kasu guztietarako..... %5